



7. Oñatiko herri eragileak **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

Oñati alkarregaz ezaguketako

7. Oñatiko herri eragileak

MUINA

- Helburuak
 - Orokorrak
 - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako norberaren buruaren ezagutzatik, norberaren zaletasunak kontuan hartuta, Oñatiko sortzaile edo herri eragileak ezagutuko dituzte eta hauekin batera proiektu txiki bat sortuko dute talde handian edo talde txikitan.
 - Espezifikoak
 - Oñatiko sortzaileak, herri eragileak, elkarteak... ezagutzea.
 - Eltzia egitasmoa ezagutzea.
 - Harremanetarako gaitasuna lantzea.
 - Sormena lantzea.
 - Erabakiak hartzeko gaitasuna lantzea.
 - Komunikatzeko gaitasuna lantzea.
 - Ekintzailetasun giroa sustatzea.
 - Irudimenaren laguntzaz komunikatzeko moduetan lanketak egitea.
- Azken xedea edo ekoizpena
 - Azken xedea izango da gela guztiaren artean edo taldeka Oñatiko herri eragileren batekin sormen lan bat egitea (sortzaileen kasuan) edo ekintza puntual bat antolatzea (elkarte eragileen kasuan).
- Ikaste taldea
 - Hirugarren ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOA

HASIERA FASEA

- **1. jarduera → Oñatiko talde eta artistak**

- Helburua: Oñatiko kultur eta herri eragileen gaineko aurrezagutzak piztea irakasleak gidatuko duen elkarrizketa baten bidez.

-Oñatin ekintza eta egitasmo herrikoiek indar handia dute eta kalendarioan espazio dezente hartzen dute. Kultur talde asko daude eta herri eragile dezente. Sekuentzia honetan arreta jarriko dugu hauengan. Horregatik, lehenengo saioaren hasieran gelara sartu eta aipatuko dugu asteburuan gauza dezente egongo direla (hau ikustea erraza da, kontzejupetik aldizkariaren agendan, adibidez). Oroitzapenekin jolastu eta hurrei esango diegu urteko asteburu guztietan zerbait dagoela Oñatin: Kontzertuak, antzerkiak, erakusketak, txozna solidarioak... Eta **honen inguruko aurrezagutzak pizteko asmoz, Oñatiko herri eta kultur eragileen inguruan galderak egingo dizkiegu:**

-Zer kultur eragile eta herri eragile daude Oñatin? Zein ezagutzen duzue zuek? Zer egiten dute? Non batzen dira? Baliteke eurak ere halako talderen bateko kide izatea, eta hor ere espazioa utziko diegu euren esperientziaren inguruan hitz egiteko. Modu honetan gelakideek gertuko errealitate bat ezagutuko dute zeinak herriari ekarpen handia egiten dion.

-Hitz egiten duten bitartean, **esaten duten kontuen zertzeladak jasoko ditugu labur**, hitz egin denaren inguruko ideiak batuta edukitzeko, aurrerago beharrezko balira.

-Elkarrizketa horretan, espazioaren inguruan hitz egitean, ziurrenik ELTZIA egitasmoa behin baino gehiagotan agertuko da. Beraz, aurreko elkarrizketa etetea egoki deritzogunean, **Eltzia egitasmoari egingo diogu erreferentzia**. Hau lantzeko aukera, baina, hurrengo jardueran izango dugu.

- **2. jarduera → Eltzia ezagutzen**

- Helburua: Eltzia egitasmoa sakonago ezagutzea txosten eta bideo batzuen bitartez.

-Elkarrizketa izan eta gero, ohartuko gara Eltzia egitasmoak baduela bere garrantzia herri mailan, izan ere herri eta kultur eragile asko dira proiektu horren parte. Ziur, arrazoi ezberdinengatik, gelakideek inoiz zapaldu izan dutela Eltzia. Baina ba ote dakite benetan zer den hori?

-Zalantza hauek uxatzeko, **ikasle bakoitzari honetarako propio sortutako txostena irekitzeko eskatuko diogu ordenagailutik**. Txosten digitala da berez, irudiek bideoetara

zuzentzen dutelako zuzenean, baina paperean ere eduki dezakete bideoak irakasleak jartzen baditu pantaila handian.

-Txostenean labur-labur azaltzen da Eltzia egitasmoa. **Azalpena osatzeko bideoak daude, eta honez gain, taula bat dago.** Taula horretan egungo Eltzekideak zein diren jasotzen da; 2020an egindakoa da, beraz, urtetik urtera aldaketak egon daitezke, proiektua bera ere nahiko dinamikoa delako.

-Beraz, talde handian landuko dute txostena eta eltzekideen inguruan zerbait baldin badakite, hurrek esan dezatela. Interesgarria da ikustea gelakideek elkarren arteko ezagutza osatu dezaketela.

- **3. jarduera → Zer egitea dugu gustoko?**

- Helburua: Norberaren zaletasunen inguruan barne-irakurketa egitea eta gelako jendea ezagutzea.

-Jarduera honetan gure barrura begira jarriko gara. Kultur eta herri mugimendu asko dago Oñatin, ondo. Baina norberaren zaletasunak jorrazteko moduko talderik badago? Eta hala bada, zein? Gure zaletasuna eta Oñatiko mugimendu soziokulturala non elkartzen den ikertzea da helburua.

-Horretarako, norberaren zaletasunak eta pasioak zein diren ezagutu beharko ditugu, lehengo eta behin. **Barrura begiratzeko fitxa** erabiliko dugu helburu horri heltzeko. Bertan, banan-banan, musika lasaia jarrita, fitxa hori bete dezaten denbora utziko diegu.

-Behin denbora igarota, talde handian konpartituko dute idatzitakoa eta partekatze honen helburua izango da zaletasun berdintsua duen jendea batu eta talde batzuk sortzea, azken proiektua izango denari forma emateko. Kasu honetan, ez da beharrezkoa talde guztiak kopuru berekoak izatea. Zaletasun edo pasioari garrantzia ematea inportanteagoa izan daiteke kasu honetan eta ez hainbeste taldekideen kopuruen orekari.

-Taldeak eginda, denon artean azken xedea finkatzeko momentua heldu da: Taldekideok gustu berdina dauzkagula aprobetxatuz, batera zerbait sortzeko helburua jarriko diogu geure buruari. Gainera, hortan dabilen eragileren batek lagunduz gero... ezinobeto!

- **4. jarduera → Nire gustuak jorratzen**

- Helburua: Taldearen zaletasunak jorratzen dituen taldeak bilatu, aurkitu, ikertu eta harremanetan jarri.

-Azken helburuari begira jarrita, **oso interesgarria da taldekideen zaletasun hori jorratzen duen talderik ba ote dagoen jakitea.** Beraz, horren bila hasiko gara. Horretarako, aurrez erabili dugun Eltziako txosteneko taulan begiratuko dugu. Hor bilatzen

ari garen disziplina agertzen ez bada, beste bide batzuk esploratuko ditugu: Udaletxera deituta, ezagunen bitartez... Ikerketa lan txikitxo bat litzateke hau, baina informazio asko emango die, batez ere zaletasun hain ohikoak ez dituztenei. Eta herrian hain ohikoa ez den hori lantzen duen norbait egoteak ate asko ireki ahal dizkie hurrei.

-Bila ari diren hori aurkitzen badute, hurrengo jarduerara egingo dugu salto, bestela ahalik eta disziplina antzerakoena lantzen duen eragile bat aurkitu beharko dute.

GARAPEN FASEA

- **5. Jarduera → Jendea ezagutzen**

- Helburua: Lankidetzaren proposatutako zaion talde edo norbanakoa elkarrizketatzea egiten duen lanaren inguruko informazioa ezagutzeko.

-Elkarrizketatua definitzean, bere inguruan zer jakin nahi duten erabakiko dute taldean, beraz, **elkarrizketa prestatu beharko dute** horretarako. Irakasle bezala, atentzioa jarriko dugu interesatzen zaigun tokian: elkarrizketa horrekin ziurtatu behar dugu bere lana, bere ibilbidea, bere lanlekua, bere ikuspegia... zein den argi geratuko dela.

-Hau prestatuta, hitz egingo dute elkarrizketatuarekin data zehazteko. Eskola ordutan ahal bada egokia litzateke, bestela, eskolaz kanpo.

-Orduan, egindako elkarrizketa egingo diote eta honez gain, **euren desioaren berri ere emango diote: eurekin batera sormen lan edo ekintza xume bat egiteko proposamena luzatuko diote elkarrizketatuari**. Gauza oso xume bat izatea nahikoa da: abeslari batekin, abesti baten bertsioa grabatu daiteke, dantzari batekin dantza bat, elkarte solidarioekin ekintza puntual bat egin daiteke... aukera asko leudeke. Baina hurrengo jarduerako lana izango da hori.

- **6. Jarduera → Taldean erabaki:**

- Helburua: Taldean azken lanak zer forma hartuko duen erabakitzea herri edo kultur eragile horren oniritziarekin.

-Jarduera honetan, taldean egindako elkarrizketan jasotako informazioa txukundu egingo dute eta ideia nagusiak zerrendatuko dituzte. Modu honetan lankide izango duten eragilearen inguruko ezagutza gehiago izango dute.

-**Honekin batera, berarekin zer egingo duten erabakiko dute: sormen lan bat, ekintza bat... izan daiteke. Baina jarduera honetatik ideia argi batekin irten beharko dira.**

-Erabaki hori eragileari komunikatuko diote eta onartuz gero, lan horretan hasiko dira.

EKOIZPEN FASEA

- **7. jarduera** → **Eragilearekin informazioa trukatu**

- Helburua: Azken xedea izango den hori posible bihurtzeko jarraitu beharreko planifikazio xume bat egitea eragilearekin batera.

-Azken xederako pentsatutako ekintza egiteko hainbat pauso eman beharko dira eta horiek zerrendatzea da jarduera honen helburua. Apur bat kaotikoa iruditu arren, ekintza horretara heltzeko eman behar diren pausoak irudikatze edo jakite hutsak, beste ikuskera eta ziurtasun bat ematen dio egin behar duen horri.

-Horretarako eragilearekin harremanetan jar daitezke. E-posta bidez ere egin daitezke horrelako jarduerak. Modu honetan, komunikatzeko modua errazagoa izan daiteke eta eskolako jarduerarekin bateragarriagoa, agian. Gainera, idazketan trebatuko dira eta hizkuntza nahi beste lan daiteke modu honetara: modalizazioa, egokitasuna, zuzentasuna...

-Finean, bide praktikoak eta efizienteak bilatu eta aurkitzean ere badatza irakasleon erronka.

- **8. jarduera** → **Proiektua elikatzen**

- Helburua: Egitera ausartu diren proiektua elikatu eta amaitzea edo ekintzaren data zehaztea (ekintza puntualen kasuan).

-Jarduera honetan egitea erabaki duten proiektuari forma emango diote, elikatu egingo dute eta prestakuntza lan guztiak egingo dute. Eraitza modu digitalean aurkeztu nahi bada, hori ere grabatu egin beharko dute jarduera honetan. Horretarako taldeko arduren banaketa oso argia izan behar da eta norberaren erantzukizunak zein diren argi izan behar dute kideek. Eta noski, gero horrekiko erantzukizunez jokatu beharko dute, taldearen onerako.

-Ekintza puntualen bat egitea erabakiz gero, ekintza horren prestakuntza lan guztia egin beharko dute eta erabakitako datan hori egin: izan daiteke performance bat, postu solidario bat, GKEren baten ekintzan boluntarioki parte hartzea...

-Eta honez gain, besteen aurrean egindako lana azaltzeko aurkezpen bat prestatu beharko dute, landu dutenaren informazio orokorra azaldu asmoz.

- **9. Jarduera** → **Egun handia!**

- Helburua: Taldeka egindako proiektuaren aurkezpena egitea.

-Jarduera honetan aurrekoan **prestatutako aurkezpenak egingo dituzte** talde handiarentzat. Ederra litzateke proiektuetan parte hartu duten eragileak ere bertaratu ahal izatea eta aurkezpenen ostean eurek euren esperientzia ere kontatzea.

-Bertan ikusi ahal izango da nola herria eraikitzen duten eragileekin batera, hurrek eraikuntza horretan parte har dezaketela. Ideia hori azpimarratzea inportantea litzateke zentzua ematen baitio guztiari.

- **10. Jarduera → Ebaluatzen:**
 - Helburua: Egindako bidea ebaluatzea.

-Jarduera honetan ibilbide guztian zehar ikasitakoaren memoria egingo dugu. **Horretarako irakasleak folio bat banatuko die denei. Folio horietan forma bat egongo da marraztuta, guztietan berdina (oinarrizko forma simple bat izatea gomendatzen da). Forma hori erabilia, bakoitzak marrazki bat egingo du galdera honi erantzuten: Zer da proiektu honetatik eramaten duzuen?**

-Beraz, folioko forma hori egingo duten marrazkian integratuta, galdera horri erantzuna eman beharko diote, eta gero asanbladan bakoitzak espazioa izango du egindakoa azaltzeko.

-Guztien azalpenak eman ostean, ondorioak aterako ditugu guztiok batera. Eta guk honetara bultzatuko ditugu: Ikusi duzue forma bakar batetik zenbat marrazki egin dituzuen? Hori gertatzen da ezagutu ditugun guztiekin. Guztiok mundu berdinean bizi gara, baina gure lekutik ikusten dugu eta horri erantzuteko modu oso diferenteak daude. Sortzaileek, artistek, herri eragileek... finean gauza bera nahi dute; mundu hobe bat, Oñati hobe bat. Eta hori lortzeko lanean dabilta.

ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)

-Eltziaren inguruan gehiago jakiteko bideoen zerrenda:

- Zer da ELTZIA?
 - <https://www.youtube.com/watch?v=5ytz0wuEK6A> (Laburpena)
 - <https://www.youtube.com/watch?v=MhIZOxVox14> (Historia luzeagoa)
- Lehen pausoak (SPOTA):
 - <https://www.youtube.com/watch?v=HBLvWoldCOo>
- Talde batzuen egoera ELTZIA aurretik:
 - <https://www.youtube.com/watch?v=RgPyRR4d2JU>

OÑATIKO KULTUR ETA HERRI MUGIMENDUA ETA ELTZIA

Oñatin kultur eragile eta herri mugimendu asko dago. Herri oso bizia da Oñati eta herritarrak euren kezkak garatzeko, euren zaletasunak partekatzeko... taldetan antolatzen dira.

2013. urtearen aurretik herrian sakabanatuta zeuden talde hauek. Gainera, batzuen egoera ez zen batere ona; musika taldeena esate baterako. Lokal batzuek berritzeko beharra zuten eta talde sortu berriek ez zuten lokalik aurkitzen, besteak beste.

Era berean, Oñatiko lehengo enpresagintza fakultatea, ETEO (Larraña auzoko eraikin handia), hutsik geratu zen unibertsitate berria lehengo Ibarra futbol zelaiaren gainean eraiki zutelako.

Beraz, bi gertakari gurutzatu ziren: Kultur talde eta herri eragileen leku falta eta eraikin handi bat hutsik. Eta kultur talde, herri eragile eta udaletxearen arteko elkarlanaren ondorioz sortu zen ELTZIA.

Eta gaur egun, talde gehienak ELTZIAN ari dira elkarrekin bizitzen. Hala ere, esan behar da Eltziako parte ez diren beste talde garrantzitsu batzuk ere badaudela Oñatin: Ganbara faktoria osatzen duten taldeak, Ikusi-makusi jubilatuen antzerki taldea, Aloña eta Oñati abesbatzak, Hotz Oñati elkarte solidarioa, Artixa kultur elkarte eta abar luze bat.

Oraingoan Eltzia osatzen duten talde eta norbanakoengan zentratuko gara. 2020ko taldeen zerrenda da honakoa. **Hauen aurretik beste talde batzuk egon ziren eta gerora berriak ere sortuko dira.**

ELTZEKIDEAK:

ELTZIA	TALDEAK / NORBANAKOAK	ZER LANTZEN DUTE?
Gorputz Eltzia	-Irazan Antzerki Gunea -Oñatz Dantza Taldea -Yoga (jubilatuentzat) -Swing Dantza Taldea -Algaraz Ikuskizun Elkarte (Potx eta Lotx) -Flamenko-fusioa -Dantza librea	-Antzerkia -Euskal dantzak -Yoga -Swing dantza mota -Pailazogintza -Flamenkoa eta bestelako dantza motak -Dantza librea
Musika Eltzia	<u>Zai Zoi Bele Musika Kolektiboa:</u> -Iker Martinez eta zaldi herrenak -Sharon Stoner -Bitz -Gusb -Roomates -Avanti -Juan Valls -Utopia -Mila modu -Herstura -Lee-Core -Broken Legacy -Kimera	BIDEOAK: -Iker Martinez: Eguzki bat tatuatu -Sharon Stoner: Satelliteak -Bitz: Zonbi -GuSB: 018 Munipa - - -Juan Valls: The hardest time - -Mila modu: Boza free -Herstura: Geruza -Lee-Core: Gorrotoaren hazia erein da -Broken Legacy: Suak bizirik dirau -Kimera: GEB

	<ul style="list-style-type: none"> -Brainstoners -Bagauda -Bizarro -Txuletons -Txua -Txipittu -Zuen Azkena -Txarki -Letagin -Soltura -Larru beltzak -Tilikum <p>*Talde hauez gain, 9 pertsona dabilta bakarlari (bateria, trompeta, kitarra, txistua...) bezala.</p>	<ul style="list-style-type: none"> - -Bagauda: Alkohol, izerdi ta Rocka -Bizarro: Giltzapeko oihuak - -Txua: Bota txua -Txipittu: Zenbat hitz - - -Letagin: Metamorfosia - - -
<p>Herri mugimenduen Eltzia</p>	<ul style="list-style-type: none"> -Ilunpetan argazki taldea -Andraitz Talde Feminista -Lizargarate Trikitixa Elkarte -Sare -Ortuzabala Kontsumo Taldea -Txinparta Bertso Eskolia -Artez hazten / Creciendo con arte -Zazpi Udaberri -Olaitturri Kultur Elkarte 	<ul style="list-style-type: none"> -Argazkilaritza -Feminismoa -Trikitixa -Preso politikoak -Elikadura eta baserria -Bertsolaritza -Artea eta hazkuntza pertsonala -Talde solidarioa -Oñatiko historia antzerki bidez

	<ul style="list-style-type: none"> -IMME (Emakumeak eta Integrazioa) -Saharaiuen elkarte -Emakumeen tailerrak 	<ul style="list-style-type: none"> -Emakumeen integrazioa -Sahararrak batzea -Emakumeak ahalduntzeko tailerrak
Auzo Eltzia	<ul style="list-style-type: none"> -Txantxiki elkarte -Lagun leku jubilatuen elkarte -Joskintza Taldea 	<ul style="list-style-type: none"> -Oñatiko gurasoen elkarte -Jubilatuak elkartzeko gunea -Joskintza
Sormen eltzia	<ul style="list-style-type: none"> -Zizelkariak -Margo Taldea 	<ul style="list-style-type: none"> -Zizelarekin egurra lantzea -Margoa

KONTAKTUAK LORTZEKO: komunikazioa.eltzia@gmail.com / ekt.eltzia@gmail.com